

Aizarnazabal lekuko herri euskaldunik gabe Euskal Herririk ez!

«UDAL elebkarren eguna» ospatu genuen Lizartzan. «Udal euskaldunen eguna» ospatuko dugu datorren maiatzaren Sean Aizarnazabalen.

Aitortu beharra daukat ni neu poztu egin naizela Udal elebkarren «izena» utzi eta «Udal Euskaldunena» hartu dutenean.

Udal elebkarrik! Ba zuen eta badu indarrik, slogan gisa: Adierazpen handikoa eta erasan bizikoa da. Euskararen berreskurapen osoaren aldeko jarrera tinkoaren seinale izateaz gain, horretarako oinarri soziolinguistiko jakina (lurreldezkotasuna) baieztatzen du, eta helbururako bide politik-administratibo zuzenekoa markatzen.

Slogana zen aurrenik, gogo bizi baten suspertzaile eta asmo tinko baten seinale. Proiektuaren gidatzaile eta eratzaitzat erabili zuten mugimenduaren slogana antolatzailerik lehen hilabeteetan. Eta agian hortxe sortu zen nahasketa: Zenbaitek erakunde berri baten izentzat hartu zutelako slogana, honek benetako izenetik baino ezizenetik gehiago eduki ohi duela konturatu gabe.

Eta hortik, slogan soila programa jakin baten titulutzat salatzen jo zuten: Elebkartasunaren politika atzerakoa dela..., eskusibista dela..., zuzengabekeriazkoa dela..., pobretasun kulturala dela..., estukeria mentala dela... Eta hasierako mugimendu hura probokaziotzat eta agresiotzat hartu zuten.

Baina orduko asmoa gaurko errealitate bihurtu denean, sloganak izenari utzi dio lekua: «Udal Euskaldunak». Nahasketa eta

salaketa gainditzeko balioko ahal du! Baina besterik dago tartean. Udal elebkarrik asko bait daude Euskal Herrian, Espainian bezala; eta ez dira, jakina, euskaldunak. Horregatik oso argigarria gertatzen da «Udal Euskaldunak» izena.

Bat gatoz, beraz, gaurko munduaren zabalteak, eta Europaren eratzak eta beste

BIESALDIAK, DIRA ERABAT BEREZKOAK ETA ZENTZUKOAK: EUSKARARIK GABE EUSKAL HERRIRIK EZ BADAGO, EZ DAGO EUSKAL HERRIRIK HERRI EUSKALDUNIK GABE.

hainbat arrazoik, gizon-emakume modernoi, espainolei, frantsesei eta euskaldunoi, hizkuntza bat baino gehiago jakitea eskatzen digutela; eta familiarik eta eskolek eta udalek eta diputazioek eta Eusko Jaurilaritzak eta Nafarroako Gobernuak eta Departamenduko agintariek herritarren eleaniztasuna bulztatu eta lagundu behar dutela.

Baina aldi berean, bat beharko dugu etorri,

normalena eta bidezkoena Lizartza eta Berrio, eta Donostia eta Bilbo, udal euskaldunak izatea dela. Sotomayor eta Toledo gaztelaradunak eta Lixieux eta Paris frantsesdunak diren bezala.

Euskal Herrian garrantzizkoak ez dira, ordea, Udal Euskaldunak, udalerrri euskaldunak baizik. Hauen zerbitzutan daude haiek: Herrietako euskararen normalkuntza osoari ofizialki eta instituzionalki erantzuteko, eta horien euskarazko biziera bideratu eta eratzeko.

Izan ere badirudi euskaldun guztiok bat gatozela ez dagoela Euskal Herririk euskararik gabe. Areago joan gaitzkeela uste dut orain, eta denok bateratu beste beste helburu honetara: Ez dago Euskal Herririk Herri Euskaldunik gabe!

Ez da hori hitz-joko soila. Eta ez dago soziolinguistika handirik jakin beharrik horretarako, ezta hizkuntz politikatan trebatua izan beharrik ere. Bi esaldiak, bat bezain bestea, dira erabat berezkoak eta zentzukoak: Euskararik gabe Euskal Herririk ez badago, ez dago Euskal Herririk Herri Euskaldunik gabe.

Horra datorren igandeko Aizarnazabaleko jaialdiaren esanahia: Herri Euskaldunen festa, Euskal Herri Euskaldunaren etorkizuneko jai handia bideratu eta antolatzeko.

PAULO AGIRREBALTZATEGI
EKB-KO LEHENDAKARIA

Ustelkeria

USTELKERIAREN fenomeno koloreanizduna. Guerra anaien pikareska ase ezina. Kreditu «bigunak» PSOEko buruzagiei. Legez aurrikusitakoak baino 3.000 txanpon-makina lizentzia gehiago emateko «distrakzioa». Influentzia trafikoa Madrilen, Barcelonan, eta jakina, Euskadin.

Ez dezagun nahastu ustelkeria giza «espeziekin». Batzuk genetikoki zuzenak. Beste batzuk arraza gaitzokoak. Eta horrela, goberna gaitzaten. Naturak zuzentasunaren dohanina eman dien pertsonak hautatzearekin konponduko litzateke Gaitza.

Arazoa bestea da, eta botere politikoaren barruan planteatu behar da. Ez horrenbeste norik gobernatzen gaituzten, zergatik, zertarako eta nola gobernatzen gaituzten baizik.

Diktadurak alde batera utzita, nor korrupzioa Erregimen politikoaren berezko ezaugarria den, eskuineko gobernuetan agintariek

beraien karguak edo funtzio publikoak helburu pribatuekin erabiltzea ohiko joera bihurtzen ari da. Eskuinak bere gain hartu du desberdintasun soziala «biologikoa» dela. Batzuk ondasunak dituztenak eta agintzen dutenak egotea, eta beste batzuk ez dituztenak eta obeditzen dutenak, nahitaezkoa den gauza adierazteaz gain, zuzena den zerbait adierazten du. Batzuk — gutxi —, besteak — asko — baino hobek dira. Onenek gobernatu behar dute. Eta beraien beste onenen mesedetan egin behar dute, agintean dauden eliteak beraien goi hierarkia «naturalarekin» jarrai dezaten. Hortik, aipatu taldeak eta beraien berriemaile politikoek boteretik lehentasuneko tratara merezi dutela kontsideratzen pausu bakarra dago. Eta nahiko laburra.

Eskuinean korrupzioak ez badakar berekin hausdura etiko konplexurik, teorikoki, bere burua ezkertertatzat duenak, boterean egon denak, erresistentzia gehiago eskaini

behar zuen, kontutan izanik bere ideologia igualitarista. Hala ere, ahaztu egin du Estatu Gaitza bezala konfiguraturik duen printzipio sozialista zaharra. Agian beharrezkoa eta koianturata, baina Gaitza azken finean. Sozialdemokraziak, gaur egun, Estatu adoratu egiten du, Gizarte zibilek bereiziz, zainari isilpean mespretxua dion. Eta zerbitzu dinamika —estua, oso estua— apurtzeak, lehenago edo geroago, babesgabeko gehiengoaren interesetara, gobernuaren pribatizazioa justifikatzen darama.

Korrupzioa distantziaren sinonimoa da. Boteretik zenbat eta gehiago urrundu, orduan eta korrupzio handiagoa. Zenbat eta hurbilago egon, orduan eta kontrol gehiago, botere disoluzio handiagoa. Hain garbia. Eta hain zaila.

PEDRO IBARRA
E.H.U.-KO IRAKASLEA

BERRIAK ZIRI



JAVIER MOSCOSO
Estatu fiskal nagusi ohio
DEIA
1991-V2

« 1993an Europako mugak desagertu egingo dira, epaileentzat ezik»



CAI CHEN
Txinako Justizia ministroa
DIARIO 16
1991-V2

« Txinoek badakite bere herria sistema sozialistak baino ezin dezakeela salba»



JOSEBA GOMEZ
Eusko Autonomi Elkarte
Polizien lider sindikala
EL SOL
1991-V2

« Zalantzak daude Ertzaintzaren prestakuntzari buruz ETaren aurka borrokatzeko»



DAVID BARBERO
El Mundo Del Pais Vasco
egunkari zuzendaria
EL MUNDO
1991-V2

« Euskal kazetagitza mundua mugatua da, nahiko bereziak diren lau egunkarik osatzen bait dute»

ZAKILIXUT

© Olariagak

